



## **EBAZPENA, 2023KO URRIAREN 11KOA, EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIARENA, EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEN DUENA 2024. URTERAKO.**

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (aurrerantzean, DLO) 8. artikuluan oinarritzko legediaren izaerarekin xedatutakoaren arabera, administrazio publikoek dirulaguntza-plan estrategiko bat egin behar dute nahitaez. Bertan zehaztuko dute zer helburu eta ondorio lortu nahi dituzten plan hori aplikatzean, zer epe behar duten haiek lortzeko, zer kostu aurreikusten diren eta zein diren finantzaketa-iturriak; betiere, berrnaberi aurrekontu-egonkortasunaren helburuak beteko direla.

DLOk manatutakoa betetzeko, dirulaguntza-plan estrategikoa onartzen da 2024. urterako.

Plan horrek eraginkortasun eta efizientzia handiagoa lortu nahi du, eta gardentasuna sendotzea dagokion jarduera-eremuan. Ondorioz, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen politika planifikatzeko tresna izango da. Izan ere, Emakundek, dirulaguntzak emanez, erakundearen helburuak lortu nahi ditu: sexuen arteko berdintasuna bideratzeko baldintzak sustatzea, izatezko eta zuzenbidezko berdintasuna bete-betean lortzeko dauden oztopoak kentzea eta sexu-bereizkeria oro deuseztatzea.

Plan hori egiteko, aztertu da zer interes publiko lortu nahi diren, eta kontrastatu dira planaren indarraldirako aurreikusten diren baliabideekin; horretarako, erreferentziatzat hartu da Euskal Autonomia Erkidegoko 2024ko Aurrekontu Orokorren Proiektua. Beraz, kontuan izan behar da plana aldatu daitekeela, baldin eta, hala badagokio, aurrekontu-proiektua aldatzen bada behin betiko onartzen denean Legebiltzarreko egoitzan.

Bestetik, bete egin dira Kontrol Ekonomikoko Bulegoak dirulaguntza-plan estrategikoetarako onartutako jarraibideak (01/15 zirkularra).

Nolanahi ere, ohartarazi behar da plana programatikoa dela, eta ez arautzailea; horrenbestez, haren edukiak ez du zuzenean sortzen ez eskubiderik, ez betebeharririk. Ondorioz, plana eraginkorra izan dadin, hainbat dirulaguntza-lerro abiarazi behar dira, kontuan hartuta, besteak beste, zer aurrekontu dagoen ekitaldi bakoitzean.

Plan estrategiko hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren gainerako plangintzan txertatzeari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana garatzen du, 2018ko ekainaren 19an onartua.



Dirulaguntza Plan Estrategikoak bost arlo nagusi ditu: elkarrekintzaren bidez, emakumeak ahalduntzea sustatzea, eta haiek aintzat hartzea; antolakunde publiko eta pribatuetan, berdintasuna sustatzea eta ezartzea, horretarako emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak onartuz; emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea, sentsibilizaziorako jarrerak sortzen dituzten erakunde eta elkarteei lagunduz; azterlanak eta ikerketak sustatzea emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzeko, eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko jarduerak aitortzea.

Azaldutakoaren ondorioz, eta kontuan izanik zer eskumen ematen dizkidan urriaren 31ko 214/2006 Dekretuak, zeinak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen baitu, hau

#### **EBAZTEN DUT:**

**Lehena.**– Eranskineko Dirulaguntza Plan Estrategikoa onartzea.

**Bigarrena.**– Plan hori Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen webgunean argitara dadila xedatzea.

**Hirugarrena.**– Plana betetzeko urteko zuzkidura ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren legetan jasotakora egokituko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 11n.

MIREN ELGARRESTA LARRABIDE  
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria.



## ERANSKINA

# EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN DIRULAGUNTZA-PLAN ESTRATEGIKOA (2023).

---

### 1. Sarrera.

#### 1.1 Aldez aurreko gogoetak

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (DLO) 8. artikuluan xedatutakoa betetzeko onartzen da plan estrategiko hau. Manu horrek ezartzen du ezen administrazio publikoetako organoek eta dirulaguntzak ezartzeko proposamena egiten duten erakunde guztiek dirulaguntza-plan estrategiko batean (aurrerantzean, DPE) zehaztu behar dutela zer helburu eta ondorio lortu nahi dituzten plana aplikatzean, zer epe duten haiek lortzeko eta zer kostu eta finantzaketa-iturri aurreikusten duten. Horretan guztian, aurrekontu-egonkortasunerako helburuak bete beharko dituzte, eta bermatu beharko dituzte publikitatearen, gardentasunaren, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta bazterkeriarik ezaren printzipioak; era berean, bermatu beharko dute eraginkortasunez betetzen dituztela administrazio-emaitzak finkatutako helburuak, eta efizientziaz esleitzen eta erabiltzen direla baliabide publikoak.

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 1/2015 Zirkularrak ezartzen duenez, EAEko Auzitegi Nagusiak (Administrazioarekiko Auzietako Salak), 2015eko urtarrilaren 21eko 48/2015 epaian, deusez deklaratu zuen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren agindu bat, ez baitzatorren bat ordenamendu juridikoarekin, dirulaguntza-plan estrategikorik onartu ez zelako dirulaguntza ezarri aurretik; alegia, ez zen bete Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikuluko xedatutakoa. Ondorioz, EAEko Administrazio Orokorreko sailek eta haien organismo autonomoek, zeinak dirulaguntza-programak sustatzen baitituzte, neurriak ezarri behar dituzte DPEak egiteko eta onartzeko; izan ere, halakorik egon ezean, deusez bihur daitezke dirulaguntza-deialdiak.

Beraz, “Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sail guztiek, bai eta dirulaguntzen programen sustatzaile diren erakunde autonomiadunek eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoek ere, dagokien plan estrategikoa onartu beharko dute. Bertan,



dirulaguntzei buruzko jarduera guztia jaso beharko dute (...). Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretako programen aurrekontu-memoretan jasotako helburuak, ekintzak eta adierazleak hartu beharko dituzte kontuan”.

Plan hau prestatzeko, aztertu da zer bide dauden lortu nahi diren helburu edo interes publikoak lortzeko, eta erkatu da ea zer baliabide egon daitekeen eskuragarri horretarako planaren indarraldian. Era horretan, bermatuko da eraginkortasuna eta efizientzia areagotzen direla eta jarduketa-eremu horretan gardentasuna indartzen dela.

Gainera, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 5. artikularen k) eta m) letretan eta 27.3 artikuluan ezarritakoa betetzen da hala (testu bategin hori martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen).

## 1.2. Izaera juridikoa

Dirulaguntza Plan Estrategikoa kudeaketa-tresna programatikoa da, arau-mailarik gabekoa. Ondorioz, ez du zuzenean sortzen ez eskubiderik ez betebeharririk onuradun izan daitezkeenentzat; halaber, plana onartzeak ez dio eskubide eta betebeharririk sortzen Administrazioari. Plana eraginkorra izan dadin, dirulaguntza-ildoak jarri beharko dira martxan, kontuan izanik, besteak beste, zer aurrekontu-baliabide dauden ekitaldi bakoitzean.

Era berean, plan hau tresna bat izango da Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen politika planifikatzeko. Izan ere, erakundeak, dirulaguntzak emanez, helburu hauek lortu nahi ditu: sexuen arteko berdintasuna bideratzeko baldintzak sustatzea, izatezko eta zuzenbidezko berdintasuna bete-betean lortzeko dauden oztopoak kentzea eta sexu-bereizkeria oro deuseztatzea.

Plan estrategikoa hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren gainerako plangintzan txertatzeari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana garatzen du, 2018ko ekainaren 19an onartua.

## 2. Plana zer erakundetan aplikatu den eta zenbat iraungo duen

Planak jasotzen du Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea organismo autonomoak zer dirulaguntza-jarduera duen 2024. urterako; dena den, aurrekontuetan urte anitzeko partidak dituzten dirulaguntza-programen kasuan, aurrekontu-zuzkidura horien denboraldi osoa jaso da.



### **3. Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak**

#### **3.1 Ardatz estrategikoak**

Sarreran adierazi bezala, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legeak helburu hauek finkatzen ditu Emakunderentzat: sexuen arteko berdintasuna bideratzeko baldintzak sustatzea, izatezko eta zuzenbidezko berdintasuna bete-betean lortzeko dauden oztopoak kentzea eta sexu-bereizkeria oro deuseztatzea.

Orobat, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak lau ardatz ezartzen ditu berdintasun-arloan esku hartzeko: gobernantza ona; ahalduntzea; antolaketa ekonomikoa eta soziala eraldatzea, eta emakumeen aurkako indarkeria desagertzea.

Dirulaguntza Plan Estrategikoak bost arlo nagusi ditu: elkartegintzaren bidez, emakumeak ahalduntzea sustatzea, eta haiek aintzat hartzea; antolakunde publiko eta pribatuetan, berdintasuna sustatzea, eta, horretarako, emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak onartzea; sentsibilizaziorako jarrerak sortzen dituzten erakunde eta elkarteei lagunduz, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea; azterlanak eta ikerketak sustatzea, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzeko, eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko jarduerak aitortzea.

Ondorioz, ardatz estrategikoak helburu orokor eta esku hartzeko ildo horien barruan daude.

#### **3.2 Lehia-konkurrentziaren araubideko dirulaguntza-lerroak.**

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 22. artikuluan ezartzen da zer prozedura dauden dirulaguntzak emateko. Prozedura arrunta lehia-konkurrentziaren araubidekoa da: aurkeztutako eskaerak alderatu ondoren ematen dira dirulaguntzak; horretarako, eskaeren artean lehentasun-ordena ezartzen da, kontuan izanik zer balorazio-irizpide finkatzen diren oinarri arautzaileetan eta deialdian, eta, irizpide horiek aplikatuta, laguntzak esleitzen zaizkie balorazio handiena lortu dutenei, harik eta deialdian finkatutako mugara iritsi arte, erabilgarri dagoen kredituaren barruan.

Salbuespen gisa, baldin eta oinarri arautzaileetan hala aurreikusten bada, organo eskudunak dirulaguntza-onuradunen artean hainbanatu dezake dirulaguntzeta zuzendutako zenbateko orokor maximoa. Sistema hori aurreikusi da 3.2.4 ataleko dirulaguntzetarako.

Datorren urterako, lehia-konkurrentziaren araubideko dirulaguntza hauek aurreikusi dira:

- Lankidetzatza instituzionaleko arloa:  
Toki-erakundeei dirulaguntzak ematea honako hauek egiteko: berdintasun-diagnostikoak eta -planak, diagnostiko eta plan sektorialak edota estrategikoak, eta indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako arreta-protokoloak, eta haiei dagozkien ebaluazioak.
- Azterlan-, dokumentazio- eta plangintza-arloa:  
Pertsona fisikoentzako dirulaguntzak, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko ikerketak egiteko.
- Programa- eta prestakuntza-arloa:  
Emakume-elkarteentzako dirulaguntzak, emakumeen asoziazionismoa eta parte-hartzea sustatzeko eremu guztietan.  
Enpresa eta entitate pribatuentzako dirulaguntzak, berdintasun-diagnostiko eta -planak egiteko.  
Emakunde saria: Sariaren helburua da azpimarratzea zer pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribatu nabarmendu diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan egindako lanagatik, eta lan hori jendaurrean aitortzea.
- Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko arloa:  
Elkarte eta beste antolakunde batzuentzako dirulaguntzak, emakumeen kontrako indarkeriazko portaerez ohartarazteko eta sentsibilizazioa lortzeko eta arreta eta laguntza eskaintzeko sexu-esplotaziorako salerosketen biktima izan diren emakume eta hurrei.

### **3.3 Lehia-konkurrentziaren araubidekoak ez diren dirulaguntza-lerroak.**

- Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko arloa:  
Pertsona fisikoentzako dirulaguntzak Emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeari buruzko unibertsitate-master ofiziala ikasteko Deustuko Unibertsitatean.

### **3.4. 2023. urterako dirulaguntza izendunak:**

- Euskal Herriko Unibertsitatearentzako dirulaguntza, “Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: berdintasun-eragileak” masterrera. 2023-2024ko ikasturtea: 29.676 €



- Dirulaguntza izenduna EHUKo Udako Ikastaroak Fundazioarentzat: 9.000 €
- Dirulaguntza izenduna Euskal Herriko Bertsolaritza Elkartearentzat, emakumeek bertsolaritzan parte hartzea susta dezan: 6.000 €
- Dirulaguntza izenduna Argiri elkartearentzat, Irungo alarde mistoa antolatzeko: 16.000 €.
- Dirulaguntza izenduna Oblatas del Santísimo Redentor kongregazioarentzat, emakume-salerosketako biktimak aurkitzeko eta artatzeko: 30.000 €.
- Dirulaguntza izenduna KCDrentzat, Zinema Ikusezina sustatzeko: 2.000 €.
- Dirulaguntza izenduna Maite Albiz dokumentazio-zentroarentzat, emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako dokumentu-funtsak kudeatzeko eta herritarrak zerbitzatzeko: 20.000 €.
- Dirulaguntza izenduna Nazio Batuen Biztanleria Funtsarentzat, indarkeriaren biktima izan diren emakume eta haurrentzako oinarrizko zerbitzuen programarako: 9.000 €.
- Dirulaguntza izenduna Gaztediaren Euskal Kontseiluarentzat, berdintasunari buruzko aholkularitza emateko: 20.000 €.
- Dirulaguntza izenduna Askabide elkartearentzat, emakume salerosketako biktimak artatu ditzan: 70.000 €.
- Dirulaguntza izenduna Nazio Batuen Biztanleria Funtsarentzat, “we decide” programarako (indarkeria matxistako biktima izan eta desgaitasuna duten emakume eta nerabeentzako programa): 9.000 €
- Dirulaguntza izenduna Nazio Batuen Biztanleria Funtsarentzat, biktima izan diren emakume eta haurrentzako oinarrizko zerbitzuen programarako: 9.000 €
- Dirulaguntza izenduna EUDELentzat, berdintasun-politikak garatzeko EAEko udalerrietan: 84.400 €.
- Dirulaguntza izenduna Euskadiko Emakume Enpresarien Federazioarentzat: 20.000 €
- Dirulaguntza izenduna Gasteiz On-entzat: 3.000 €
- Dirulaguntza izenduna Arizmendiarieta Fundazioarentzat: 10.000 €
- Dirulaguntza izenduna Euskadiko Kooperatiben Konfederazioarentzat: 30.000 €

### 3.2.1

**Ardatzak eta dirulaguntza-lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak**

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALENTZAKO ETA UDALAZ GAINDIKO LURRALDE-ENTITATEENTZAKO DIRULAGUNTZAK, GENERO-INDARKERIAREN ARLOKO DIAGNOSTIKOAK, BERDINTASUN-PLANAK ETA TOKIKO PROTOKOLOAK EGITEKO.**

**Helburua: 3. EAE-KO BOTERE PUBLIKOEN BERDINTASUNAREN ARLOAN GAUZATU BEHAR DUTEN JARDUERA BIDERATZEKO JARRAIBIDE OROKORRAK EZARTzea.**

**Ekintza:** 3.2. Dirulaguntza-deialdia kudeatzea, honetarako egiten dena: udalerriek, kuadrillek eta mankomunitateek emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak egin ditzaten, berdintasunerako planak egin eta ebaluatu ditzaten edo emakumeen aurkako indarkeriaren arloko tokiko protokoloak egin ditzaten.

**Adierazleak:**

- 36. Zenbat proiektu diruz lagundu zaien udalei, kuadrillei, mankomunitateei eta bi udalerrri edo gehiagoko elkarteei.
- 30. Zenbat udalerrri txikiagori (5.000 biztanle baino txikiagokoei) diruz lagundu zaizkien proiektuak.

**EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VII. PLANA**

**HELBURU ESTRATEGIKOA:**

**I. PROGRAMA: KONPROMISO POLITIKOA (zuzenean gehien inplikatur daudenak soilik)**

**BG3. BERDINTASUNERAKO PLANGINTZA ETA HAREN EBALUAZIOA AREAGOTZEA ETA HOBETZEA:**

**BG3.1. Berdintasunerako plan bat duten entitate publikoen kopurua handitzea. Adierazleak:**

- Zenbat toki-entitatek duten berdintasun-plana indarrean, udalerrien tamainaren eta gauzatzeko moduren arabera (banaka edo elkarlanean).
- Berdintasunerako plana duen udalerrri batean bizi den EAEko biztanleriaren ehunekoak.
- Zenbat toki-entitatek hasi dituzten plangintza-prozesuak edota zenbatek sinatu duten Europako Gutuna eta konpromisoa hartu bost urtean hasteko.

**BG4. BERDINTASUNERAKO UNITATE ADMINISTRATIBOAK SORTZEA ETA INDARTZEA**

**BG4.3. Gehiago izatea unitate espezializatur eta berdintasunean trebatutako langile propioak dituzten toki-entitateak.**

**Adierazleak:**

- Zenbat toki-entitatek dituzten berdintasun-unitatea eta teknikari propioa eta espezializaturak berdintasunean lanean.
- Berdintasunean soilik eta lanaldi osoz lanean diharduten teknikariak dituzten udalerrien ehunekoak.



**Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publikoa orotara hartuta**

<b>Helburu estrategikoa:</b>				
<b>Dirulaguntza-lerroa: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALENTZAKO ETA UDALAZ GAINDIKO LURRALDE-ENTITATEENTZAKO DIRULAGUNTZAK, GENERO-INDARKERIAREN ARLOKO DIAGNOSTIKOAK, BERTINTASUN-PLANAK ETA TOKIKO PROTOKOLOAK EGITEKO.</b>				
<b>Organoa: EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA</b>	<b>2024</b>		<b>2025</b>	
<b>Egitaraua: 32230 EMAKUNDE</b>	Zenbatekoa €	% 100	Zenbatekoa €	% 100
	4. kapitulua: <b>500.000</b>	<b>% 100</b>	<b>500.000</b>	<b>%100</b>
	7. kapitulua: <b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
	<b>Dirulaguntza-lerroa, guztira: 500.000</b>		<b>500.000</b>	

**Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Helburu duten edo dituzten sektore edo sektoreak eta emateko prozedura**

<b>Helburu estrategikoa:</b>	
<b>Dirulaguntza-lerroa: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALENTZAKO ETA UDALAZ GAINDIKO LURRALDE-ENTITATEENTZAKO DIRULAGUNTZAK, GENERO-INDARKERIAREN ARLOKO DIAGNOSTIKOAK, BERTINTASUN-PLANAK ETA TOKIKO PROTOKOLOAK EGITEKO.</b>	
<b>Organoa: EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA</b>	
<b>Egitaraua: 32230 EMAKUNDE</b>	
Sektore hartzaileak	EAEko udalak eta udalaz gaindiko lurralde-entitateak
Dirulaguntza emateko prozedura	Lehiaketa



### 3.2.2.

**Ardatzak eta dirulaguntza-lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak**

<b>ENPRESA ETA ENTITATE PRIBATUENTZAKO DIRULAGUNTZAK, AHOHKULARITZA-ENPRESA HOMOLOGATUAK KONTRATA DITZATEN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA ETA BERDINTASUN-PLANA EGITEKO.</b>
<p><b>Helburua:</b> 9.8. ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOA ERALDATZEA SUSTATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO.</p> <p><b>Ekintza:</b> 9.8. Aholkularitza, prestakuntza eta laguntza ekonomikoa emanez eta aitorten soziala eginez, bultza egitea ENPRESEK eta entitate pribatuek berdintasun-politikak gara ditzaten.</p> <p><b>Adierazlea:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- 60-80, zenbat dirulaguntza eman zaizkien enpresei eta entitate pribatuei emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak eta planak egiteko.</li> </ul>
<b>EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VII. PLANA</b>
<b>HELURU ESTRATEGIKOA: II. ARDATZA. EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO.</b>
<p><b>3. PROGRAMA: AITORTZEA BERDINTASUNA BEHAR DEN BALIO BAT DELA GIZARTEA ETA EKONOMIA ERALDATZEKO.</b></p> <p><b>3.4. Antolaketa- eta enpresa-kultura berdintasunarekin parekatzea.</b></p> <p><b>3.4.1 Enpresa-kultura eta -praktikak berdintasunerantz aldatzeko ikuspegia txertatzen duten berdintasun-planak dituzten erakunde publiko, gizarte-agente, enpresa eta entitate pribatuen kopurua handitzea.</b></p> <p><b>Adierazleak:</b></p> <p>Emakunderen metodologiatik abiatuta diagnostikoak eta berdintasun-planak egin dituzten enpresa eta entitate pribatuen kopuruaren bilakaera.</p> <p>Berdintasun-plana egiteko aholkularitza espezializatua jasotzen duten erakunde publikoen, gizarte-agenteen, enpresen eta entitate pribatuen kopuruaren bilakaera.</p>

**3 eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publikoa orotara hartuta**

<b>Helburu estrategikoa:</b>				
<b>Dirulaguntza-lerroa: ENPRESA ETA ENTITATE PRIBATUENTZAKO DIRULAGUNTZAK, AHOHKULARITZA-ENPRESA HOMOLOGATUAK KONTRATA DITZATEN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA ETA BERDINTASUN-PLANA EGITEKO.</b>				
<b>Organoa: EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA</b>	<b>2024</b>		<b>2025</b>	
<b>Egitaraua: 32230 EMAKUNDE</b>	Zenbatekoa €	% 100	Zenbatekoa €	% 100
4. kapitulua:	<b>400.000</b>	<b>% 100</b>	<b>400.000</b>	<b>%100</b>
7. kapitulua:	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>Dirulaguntza-lerroa, guztira:</b>	<b>400.000</b>		<b>400.000</b>	



**Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Helburu duten edo dituzten sektore edo sektoreak eta emateko prozedura**

<b>Helburu estrategikoa:</b>	
<b>Dirulaguntza-lerroa: ENPRESA ETA ENTITATE PRIBATUENTZAKO DIRULAGUNTZAK, AHOLKULARITZA-ENPRESA HOMOLOGATUAK KONTRATA DITZATEN, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA ETA BERDINTASUN-PLANA EGITEKO.</b>	
<b>Egitaraua: 32230 EMAKUNDE</b>	
Sektore hartzaileak	Enpresa eta entitate pribatuak
Dirulaguntza emateko prozedura	Lehia-konkurrentzia.



### 3.2.3

#### Ardatzak eta dirulaguntza-lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

<b>EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO 2024-2025KO IKERKETA-BEKAK (HIRU).</b>
<p><b>Helburua:</b> 9. ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOA ERALDATZEA SUSTATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO.</p> <p><b>Ekintza:</b> 9.3. Azterlanak eginez eta dokumentatuz eta genero-ikerketa eta -prestatuntza lagunduz emakumeen eta gizonen berdintasun-arloko ADITU-EZAGUTZA bultzatzea</p> <p><b>Adierazlea:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- 3, zenbat ikerketa-beka ematen diren</li> </ul>
<b>EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VII. PLANA</b>
<b>GOBERNU ONA</b>
<b>BG.6 HELBURUA. ESTATISTIKETAN ETA IKERKETETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA</b>
<p><b>Ekintza:</b> Sustatzea genero-ikuspegiaz ikertzea eta emakumeen eta gizonen berdintasunean prestatzea.</p> <p><b>Adierazleak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurkeztutako eskabide kopuruaren bilakaera</li> <li>• Zenbat ikerketa-lan egiten diren emandako beken ondorioz</li> <li>• Emandako beken onuradun zuzen modura berdintasun-arloan prestatutako emakume eta gizonen ehunekoak</li> </ul>

#### Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoak, finantzaketa publikoa orotara hartuta

<b>Helburu estrategikoa:</b>				
<b>Dirulaguntza-lerroa:</b> EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO IKERKETA-BEKAK (HIRU). <b>2024:</b> 23.333 €. (47 3223 01 451 19/1485) <b>2025ko</b> konpromiso-kreditua: 46.666 €				
<b>Organoa:</b> EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA	<b>2024</b>		<b>2025</b>	
<b>Egitaraua:</b> 32230 EMAKUNDE	Zenbatekoa €	1/3	Zenbatekoa €	2/3
4. kapitulua:	<b>23.333</b>		<b>46.666</b>	
7. kapitulua:	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>Dirulaguntza-lerroa, guztira:</b> 69.999,00	<b>23.333</b>		<b>46.666</b>	



**Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Helburu duten edo dituzten sektore edo sektoreak eta emateko prozedura**

<b>Helburu estrategikoa:</b>	
<b>Dirulaguntza-lerroa: EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERTINTASUNARI BURUZKO IKERKETA-BEKAK (HIRU).</b>	
<b>Organoa: EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA</b>	
<b>Egitaraua: 32230 EMAKUNDE</b>	
Sektore hartzaileak	Pertsonak edo pertsona fisikoen taldeak
Dirulaguntza emateko prozedura	Lehia-konkurrentzia.



### 3.2.4.

#### Ardatzak eta dirulaguntza-lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

<b>IRABAZI-ASMORIK GABEKO EMAKUME-ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK.</b>
<p><b>Helburua:</b> 8.2 EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALA, KOLEKTIBOA, SOZIALA ETA POLITIKOA SUSTATZEA</p> <p><b>Ekintza:</b> 8.3. Emakume-federazio, -fundazio eta -elkarteei laguntzea jarduerak egin ditzaten berdintasuna lortzeko eta emakumeen autonomia sustatzeko eta emakumeen posizio soziala, ekonomikoa eta politikoa indartzeko, DIRULAGUNTZEN urteroko deialdia kudeatuz eta aholkatuz.</p> <p><b>Adierazleak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- 100-140 Zenbat dirulaguntza eman zaien emakume-elkarteei.</li> <li>- 100-250 Zenbat proiektu diruz lagundu zaien emakume-elkarteei.</li> </ul>
<b>EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERTINTASUNERAKO VII. PLANA</b>
<b>HELBURU ESTRATEGIKOA:</b> I. ARDATZA. EMAKUMEAK AHALDUNTZEA

#### Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publikoa orotara hartuta

<b>Helburu estrategikoa:</b>				
<b>Dirulaguntza-lerroa:</b> IRABAZI-ASMORIK GABEKO EMAKUME-ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK. 2024: 300.000 €. Konpromiso-kreditua: 2025: 100.000 € (47 3223 01 452 19/1491)				
<b>Organoa:</b> EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA	<b>2024</b>		<b>2025</b>	
<b>Egitaraua:</b> 32230 EMAKUNDE	Zenbatekoa €	% 75	Zenbatekoa €	% 25
4. kapitulua:	<b>300.000</b>	<b>% 100</b>	<b>100.000</b>	<b>% 25</b>
7. kapitulua:	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>Dirulaguntza-lerroa, guztira:</b> 400.000,00	<b>300.000</b>		<b>100.000</b>	



**Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Helburu duten edo dituzten sektore edo sektoreak eta emateko prozedura**

<b>Helburu estrategikoa:</b>	
<b>Dirulaguntza-lerroa: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALENTZAKO ETA UDALAZ GAINDIKO LURRALDE-ENTITATEENTZAKO DIRULAGUNTZAK, GENERO-INDARKERIAREN ARLOKO DIAGNOSTIKOAK, BERTINTASUN-PLANAK ETA TOKIKO PROTOKOLOAK EGITEKO.</b>	
<b>Organoa: EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA</b>	
<b>Egitaraua: 32230 EMAKUNDE</b>	
Sektore hartzaileak	Irabazi-asmorik gabeko emakume-elkarte eta -federazioak, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 7/2007 Legearen aplikazio-eremukoak, eta helburu eta jarduketa-eremu bakartzat emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egitea duten emakume-fundazioak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen aplikazio-eremukoak direnak.
Dirulaguntza emateko prozedura	Lehia-konkurrentzia.

### 3.2.5

#### Ardatzak eta dirulaguntza-lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO EKIMENAK SUSTATZEN DITUZTEN ENTITATEENTZAKO DIRULAGUNTZAK	
<p><b>Helburua:</b> 10.2. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA MURRIZTEN ETA PREBENTZIOA, DETEKZIOA ETA ARRETA HOBETZEN LAGUNTZEA.</p> <p><b>Ekintza:</b> 10.2. DIRULAGUNTZA-deialdia kudeatzea, laguntzak emateko emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen duten antolakunde, elkarte eta fundazioei; baita indarkeria horren inguruko sentsibilizazio-jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituztenei ere.</p> <p><b>Adierazlea:</b> 40 Zenbat dirulaguntza lortu duten indarkeria sexistaren eremuan diharduten emakume-elkarte eta -entitateek.</p>	
EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VII. PLANA	
HELBURU ESTRATEGIKOA: III. ardatza, Emakumeen Aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzak	
<p><b>6. PROGRAMA: SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA</b></p> <p><b>6.1 Indarkeria estrukturala eta kulturala murriztea.</b></p> <p>6.1.1 Gero eta gehiago izatea emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko pertsonak eta hori sustatzen dutenak; batik bat, adingabeez arduratzen direnak, edo beren erantzukizun-esparruagatik adingabeentzako eredu direnak.</p> <p>6.1.2 Irudi eta eduki mediatikoak kentzea, baldin eta adierazten badute pertsonak maila handiagokoak edo txikiagokoak direla sexuaren arabera, edota pertsonak sexu-objektu huts gisa aurkezten badituzte edota emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, hutsaltzen edota bultzatzen badute, berriro ere biktimitza ez daitezen hedabideetan agertuta.</p> <p>6.1.3 Emakumeen kontrako indarkeriaren informazio-trataera hobetzea, genero-desberdinkeria oinarritzko elementu gisa eta emakumeak borrokaren eragile aktibo gisa erakuts daitezen.</p> <p>6.1.4 Desberdinkeriaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arteko lotura ikusarazten duten programetan eta jardueretan parte hartzen duten edo hura prebenitzeko ahaleginak egiten dituzten eta gatazkak indarkeriarik gabe konpontzea sustatzen duten pertsonen kopurua areagotzea; batez ere, mutilena eta gizonena.</p> <p>6.1.5 Emakumeen aurkako indarkeria motei eta horiek desberdinkeriarekin duten harremanari buruzko gizarte-pertzepzioa areagotzea, batik bat indarkeriaren modu zorrotz eta ezkutukoenei buruzkoa.</p> <p><b>6.2 Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa, ikerketa eta prestakuntza hobetzea.</b></p> <p>6.2.1 Informazioa biltzeko eta homogeneousatzeko sistemak hobetzea, EAEn gertatutako emakumeen kontrako indarkeria kasuei buruzko datu eguneratuak izateko eta gai horretan parte-hartze publikoa hobetzeko.</p> <p>6.2.2 Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko eta haren adierazpenei buruzko jakintza hobetzea.</p> <p>6.2.3 Ez zaintzarekin lotutako emakumeen aurkako indarkeria motak aztertzea, bereziki adineko emakumeetan eta dibertsitate funtzionala dutenetan, hala familian nola erakundeetan.</p> <p>6.2.4 Indarkeriaren kontzeptualizazioari eta esku-hartzeetan horrek dituen ondorioei buruzko hausnarketa bultzatzea, arreta berezia jarriz indarkeria mota berrietan.</p> <p>6.2.5 Bermatzea emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta ematen dieten profesionalen prestakuntza iraunkorra, nahikoa eta eremu eta ardura-maila guztietara egokitutakoa izatea.</p> <p>6.2.6 Beren esku-hartzean emakumeen ahalduntze pertsonala eta kaltea konpontzearen kontzeptua txertatzeko behar besteko trebakuntza duten profesionalen kopurua handitzea.</p> <p><b>6.3 Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa sustatzea eta sendotzea.</b></p> <p>6.3.1 Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko gazteekin egiten den lana ugaritzea.</p>	





6.3.2 Emakumeen genitalen mutilazioaren prebentzioa sustatzea, eta praktika kulturekin lotutako beste indarkeria-agerpen batzuen ere bai (adibidez, nahitaezko ezkontzak, behartutako abortuak eta antzuteak eta ustezko «ohorearen» izenean egindako delituak).

6.3.3 Dibertsitate funtzionala duten emakumeen aurkako sexu-indarkeriaren prebentzioa handitzea.

6.3.4 Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko prebentzio- eta arreta-programen eta -neurrien eraginkortasuna hobetzea.

#### 7. PROGRAMA: KALTEA HAUTEMATEA, ARRETA EMATEA ETA KONPONTZEA

7.1 Emakumeen aurkako indarkeriaren detekzio goiztiarra handitzea

7.1.1 Emakumeen aurkako indarkeriaren detekzio goiztiarrean era proaktiboan eta ezarritako protokoloen arabera jardungo duten profesionalak gehitzea hezkuntza-, osasun-, polizia-, epaitegi-, lan- eta gizarte-sisteman.

7.1.2 Esku hartzeko eremu guztietan indarkeriaren detekzio goiztiarra handitzea, indarkeria psikologikoan arreta berezia jarritz.

7.1.3 Bizirik irten diren eta informazio egokia jasotzen duten emakume biktimen kopurua handitzea, arreta integraleko prozesuaren aurretik, bitartean eta ondoren beren itxaropenei egokitutako erabakiak hartu ahal izan ditzaten.

7.1.4 Edozein indarkeria-motaren aurrean zerbitzuak eta baliabideak ahalik eta goizen erabiltzen dituzten emakume biktimen kopurua areagotzea, arreta berezia jarrita zerbitzuak eta baliabideak erabiltzeko zailtasun handienak dituztenetan.

#### Adierazleak:

40 Zenbat dirulaguntza lortu duten indarkeria sexistaren eremuan diharduten emakume-elkarte eta -entitateek.

40 Diruz lagundutako proiektuetatik, zenbat bete eta justifikatzen diren egokiro.

35 Zenbat entitate diren dirulaguntzen onuradun.

#### Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publikoa orotara hartuta

Helburu estrategikoa:				
Dirulaguntza-lerroa: GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO EKIMENAK SUSTATZEN DITUZTEN ENTITATEENTZAKO DIRULAGUNTZAK. (Kontu-saila: 47 3223 01 452 19/1494)				
Organoa: EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA	2024		2025	
Egitaraua: 32230 EMAKUNDE	Zenbatekoa €	% 75	Zenbatekoa €	% 25
4. kapitulua:	225.000	% 75	75.000	% 25
7. kapitulua:	0	0	0	0
<b>Dirulaguntza-lerroa, guztira: 300.000,00</b>	<b>225.000</b>		<b>75.000</b>	

#### Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Helburu duten edo dituzten sektore edo sektoreak eta emateko prozedura



<b>Helburu estrategikoa:</b>	
<b>Dirulaguntza-lerroa: GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO EKIMENAK SUSTATZEN DITUZTEN ENTITATEENTZAKO DIRULAGUNTZAK.</b>	
<b>Organoa: EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA</b>	
<b>Egitaraua: 32230 EMAKUNDE</b>	
Sektore hartzaileak	Irabazi-asmorik gabeko antolakunde, elkarte eta fundazioak.
Dirulaguntza emateko prozedura	Lehia-konkurrentzia.

### 3.2.6.

#### Ardatzak eta dirulaguntza-lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

<b>BERDINTASUNAREN ALDEKO 2023KO EMAKUNDE SARIA</b>	
<p><b>Helburua: 8. EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALA, KOLEKTIBOA, SOZIALA ETA POLITIKOA SUSTATZEA.</b>  <b>8.4. Emakumeek eta feminismoak zer ekarpen egiten duten ikusaraztea eta haiek bizitzako eremu guztietan parte har dezaten laguntzea.</b>  <b>Ekintza:</b> Emakunde sariaren deialdia:  <b>Adierazleak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- 1 Emakunde sariaren deialdia (2022).</li> </ul>	
<b>EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VII. PLANA</b>	
<b>HELBURU ESTRATEGIKOA: I. ARDATZA. EMAKUMEAH AHALDUNTZEA</b>	
<b>1. PROGRAMA. EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONAL ETA KOLEKTIBORAKO LAGUNTZA</b>	
1.1	Giza garapen jasangarrirako emakumeek eta feminismoak duten zereginaren onarpena sustatzea.
1.1.1	Berdintasunaren arloko gizarte-aurrerapenean emakumeek eta feminismoak egindako ekarpenak ageriago jartzea eta gizartean ekarpen onarpena handitzea.
Adierazleak:	
-	Emakumeek berdintasunaren arloko gizarte-garapenean egindako ekarpenak hedatzen, agerian jartzen edo onartzen dituzten sarien eta lehiaketan kopuruaren hazkundera.
-	Zenbat ekintza egin diren gizarteak aitortzen dituzten berdintasunean aurrera egiteko ekarpenak.

#### Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoak, finantzaketa publikoa orotara hartuta

<b>Helburu estrategikoa:</b>				
<b>Dirulaguntza-lerroa: BERDINTASUNAREN ALDEKO EMAKUNDE SARIA. 2024ko aldia. 14.400 €. (47 3223 01 451 19/1484)</b>				
<b>Organoa: EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA</b>	<b>2024</b>		<b>2025</b>	
<b>Egitaraua: 32230 EMAKUNDE</b>	Zenbatekoa €	% 100	Zenbatekoa €	
4. kapitulua:	<b>14.400</b>	<b>% 100</b>		
7. kapitulua:	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>Dirulaguntza-lerroa, guztira: 14.400,00</b>	<b>14.400</b>			



**Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Helburu duten edo dituzten sektore edo sektoreak eta emateko prozedura**

<b>Helburu estrategikoa:</b>	
<b>Dirulaguntza-lerroa: BERDINTASUNAREN ALDEKO EMAKUNDE SARIA</b>	
<b>Organoa: EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA</b>	
<b>Egitaraua: 32230 EMAKUNDE</b>	
Sektore hartzaileak	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan egindako lanagatik nabarmendu diren pertsona fisikoak edo juridikoak, publikoa edo pribatuak.
Dirulaguntza emateko prozedura	Lehia-konkurrentzia.

### 3.3

#### Ardatzak eta dirulaguntza-lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

<b>EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAN ESKU HARTZEARI BURUZKO UNIBERTSITATE-MASTER OFIZIALA EGITEKO LAGUNTZAK. 2023-2024</b>	
9. helburua. ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOA ERALDATZEA SUSTATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO.	
9.3. ekintza. Azterlanak eginez eta dokumentatuz eta genero-ikerketara eta -prestakuntza lagunduz emakumeen eta gizonen berdintasun-arloko ADITU-EZAGUTZA bultzatzea	
Adierazlea: Urteko deialdia. Magnitueda: 1	
<b>EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VII. PLANA</b>	
<b>HELBURU ESTRATEGIKOA: III. ARDATZA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA</b>	
<b>6. PROGRAMA: SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA</b>	
6.2	Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa, ikerketa eta prestakuntza hobetzea.
6.2.1	Informazioa biltzeko eta homogeneizatzeko sistemak hobetzea, EAEn gertatutako emakumeen kontrako indarkeria kasuei buruzko datu eguneratuak izateko eta gai horretan parte-hartze publikoa hobetzeko.
6.2.2	Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko eta haren adierazpenei buruzko jakintza hobetzea.
6.2.3	Ez zaintzarekin lotutako emakumeen aurkako indarkeria motak aztertzea, bereziki adineko emakumeetan eta dibertsitate funtzionala dutenetan, hala familian nola erakundeetan.
6.2.4	Indarkeriaren kontzeptualizazioari eta esku-hartzeetan horrek dituen ondorioei buruzko hausnarketa bultzatzea, indarkeria-mota berrietan arreta berezia jarritz.
6.2.5	Bermatzea emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta ematen dieten profesionalen prestakuntza iraunkorra, nahikoa eta eremu eta ardura-maila guztietara egokitutakoa izatea.
6.2.6	Beren esku-hartzean emakumeen ahalduntze pertsonala eta kaltea konpontzearen kontzeptua txertatzeko behar besteko trebakuntza duten profesionalen kopurua handitzea.
Adierazlea: 15, Emakumeen Aurkako Indarkerian Esku Hartzeko Masterreko ikasleei emandako laguntzen kopurua	

#### Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoak, finantzaketa publikoa orotara hartuta

<b>Helburu estrategikoa:</b>				
<b>Dirulaguntza-lerroa: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAN ESKU HARTZEARI BURUZKO UNIBERTSITATE-MASTER OFIZIALA EGITEKO LAGUNTZAK. 2024: 21.933 €. Konpromiso-kreditua: 2025 7.311 € (47 3223 01 451 19/1488)</b>				
<b>Organoa: EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA</b>	<b>2024</b>		<b>2025</b>	
<b>Egitaraua: 32230 EMAKUNDE</b>	Zenbatekoa €	% 75	Zenbatekoa €	% 25
	4. kapitulua:	21.933	7.311	% 25
	7. kapitulua:	0	0	0
	<b>Dirulaguntza-lerroa, guztira: 29.244,00</b>	<b>21.933</b>	<b>7.311</b>	

**Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Helburu duten edo dituzten sektore edo sektoreak eta emateko prozedura**

<b>Helburu estrategikoa:</b>	
<b>Dirulaguntza-lerroa: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAN ESKU HARTZEARI BURUZKO UNIBERTSITATE-MASTER OFIZIALA EGITEKO LAGUNTZAK</b>	
<b>Organoa: EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA</b>	
<b>Egitaraua: 32230 EMAKUNDE</b>	
Sektore hartzaileak	Eskatzaileek betekizun hauek bete behar dituzte: a) Administrazio-auzotasuna Euskal Autonomia Erkidegoan edukitzea, laguntza eskatu baino urtebete lehenagotik, gutxienez. b) Genero-indarkeriaren arloko esku-hartzearen arloan prestakuntza jasotzeko interesa izatea, eta gaikuntza profesionala lortu nahi izatea, berdintasunaren arloan eta genero-indarkeriaren biktimei arreta integrala ematekoan esku-hartze eraginkorrak egiteko. c) Emakumeen Aurkako Indarkerian Esku Hartzeari buruzko Unibertsitate Master Ofizialean onartutakoen artean izatea.
Dirulaguntza emateko prozedura	Lehiakoa ez den konkurrentzia.